



Landa turismoko ikastaroak hasi dira Zizurkilen Fraisoro eskolan

PARTAIDETZA ▶ Hamabost ikaslek hartuko dute parte, tartean lau txiletar izango dira

EGITARAU ▶ Hiru hilabeteko programa izango dute IV. Ikastaro honetako ikasleek ▶ 4



Landa turismoko ikasle taldea atzo eguerdian Villabonako Fraisoro nekazal eskolan. IMANOL GARCIA

GOIERRI ▶

Bosgarren HITZA atera da gaur kalera

Atzo aurkeztu zuten Beasainen eta gaur banatuko da ▶ 2

TOLOSA ▶

Penaltian huts eginda galdu du Tolosak

Hutsna bukatu zuen futbol partidua Aretxabaletarekin ▶ 3

IBARRA ▶

Berdinketa lortu du Ibarrek Arnedon

Parekaturik ibili zen Virgen del Vico taldearekin ▶ 6

LEITZA ▶

Aurrerak 6-0 irabazi du Arkixkilen ▶ 7

IBARRA ▶

Giro ona izan zuten Lasturreko irteeran larunbatean

Garagardo Azokan lanean aritutakoak elkartu ziren, 92 guztira ▶ 6



Ibartarrak hamaiketako egiten Lasturren. HITZA

KOMUNIKABIDEAK ▶

Bosgarren HITZA euskarazko egunkaria sortu dute Goierrin

Atzo egin zuten aurkezpena Beasainen; gaurtik aurrera banatuko dute egunero



GOIERRIKO HITZA-n ariko den lan-talde, egunkariak Beasainen duen egoitza nagusiaren atarian. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Hiru urte beteko ditu abenduan Tolosaldeko euskarazko egunkariak. Hiru urte. Atzera begiratu, eta urrun geratzen dira hasierako bilerak, helburuak, asmoak, egunak... Zailtasun handiekin maiz, eta errazago orohar, eskualdeko gertakarien berri eman du egunkariak urteotan, eta horretantxe jarraitzen du egunero.

Lan handia eman zuen *Tolosaldean Egunero* sortzeak; irauten, berriz, ez zioten utzi. *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean TOLOSALDEKO HITZA izena hartu zuen eskualdeko euskarazko egunkariak, eta Leitzaldera zabaldu zenetik handixeago ere bada. Hasiera hartatik hona handituz joan da harpidedunen, irakurleen, eskualdeko egunkaria sortzen lagundu duten gizarte eragile eta proiektuak diruz lagundu duten erakundeen kopurua: konturatzera, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria heldutzen ari zaigu.

Kozkortzen ari dira gainerakoak ere. Oarsoaldekoak eta Lea-Artibai eta Mutrikukoak lortu dute eskualde horietan erreferente izatea, eta euskaraz, kalitateko produktua eskaintzen diete harpidedunei eta irakurleei egunero —astelehenetan izan ezik—. Urola-Kostakoak, aldiz, otsailaren ikusi zuen argia, eta bide luzea du oraindik egiteko. Hangoa izan da azkena sortzen, eta gaurtik aurrera, beste bat ere bada: bosgarrena. GOIERRIKO HITZA.

Atzo aurkeztu zuten Beasainen GOIERRIKO HITZA egunkariaren 1. zenbakia. Gaurtik aurrera, asteartetik igandera izango da kalean eskualde hartako euskarazko egunkaria. Eskual-

AIMAR MAIZ ▶ GOIERRIKO HITZA-REN ZUZENDARIA

«Informazio aldetik erreferente bihurtu behar dugu Goierrin»

Gabirian jaio zen Aimar Maiz 1978ko uztailaren 10ean, eta Euskal Filologia ikasi du Gasteizen. Idaztea eta irakurtzea betidanik izan ditu zaletasun; horregatik hasi zen 2000. urtean *Goierriarra* aldizkarian idazten. Bi astetik behin Gabiri-kronikak egiten zituen lehen, eta GOIERRIKO HITZA zuzenduko du orain egunero.

Zortzi orrialdeko egunkaria egingo duzue egunero euskaraz. Erroka handia, ezta?

Euskararen arloan badago lana egiteko. Eskualdeko euskaldun guztiengana heltzen saiatuko gara lehenik, eta biztanle erdaldunak erakartzen, gero; gertuko informazioa jorratuko dugunez, zilegi izango da hori. Informazio aldetik erreferente bihurtu behar dugu Goierrin.

Euskaldun kopurua handia al da eskualdean?

deko 22 herrietako informazioa emango du, eta arlo horretan zegoen hutsunea beteko du era horretara. Bertako Hedabideek, Goierriko euskara elkar-teen —Zintzo Mintzo eta Goierriarra— eta eskualde horietako gizarte eragileek sustatu dute proiektua, eta Aimar Maiz gabiriarrak izango da zuzendaria. Denara 8.500 ale banatuko dira, gutxi gorabehera.

2001eko datuen arabera ez da biztanle kopurua 65.000a hel-tzen, eta horietatik 38.700 es-kas dira euskaldunak. HITZA-rekin euskaldunen kopurua handitzea lortu nahi dugu.

Bi aldizkari zenituzten orain arte. Egunkaririk, ordea, ez. HITZA hutsune hori betetzera dator. *Goierriarra* eskualdeko 19 herritan banatzen zen orain arte hamabostean behin, eta *Otamotz* Zumarragan eta *Urretxun* hilabetero. Legazpi aldizkari-rik gabe zegoen. Aldizkari-riak txiki geratzen ari ziren, eguneroko informazioa biltzea ezinezko izaki, aktualitatea galtzen zutelako. Eguneroko egunkariaren alde, apustu egin dugu horregatik.

Hogeita bi herri biltzen ditu. Goierri bere osotasunean hartu dugu. Legorretatik Ezkio-Itsasoraino ulertu izan da es-



GOIERRIKO HITZA

kualdea orain arte, baina Le-gazpi, Zumarraga eta Urretxu ere bilduko ditu. Horiez gain, Ataun, Beasain, Zegama, Ze-rain, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Ga-biria, Idiazabal, Itsasondo, Laz-kaio, Olaberria, Ordizia, Segura, Zaldibia, Arama, Altxaga, Muti-loa, Legorreta eta Ormaiztegi-ko berri emango du.

Lan taldeaz, zer iritzi? Gazteak gara denak. Orotara hamar lagun ariko gara: batzuk eskarmentu handia dute; bes-teek gutxiago. Gogotsu gaude, lanari heltzeko irrikaz. ◀

Goierri Telebistak GOIERRIKO HITZA-ri buruz egindako ikus-entzutekoarekin hasi zen eki-taldia. Ondoren, eskualdeko bertsolariek bertso bana bota zioten egunkariari, eta proiektuaren sustatzaileek hitz bana egin zuten gero. GOIERRIKO HITZA-ren 1. zenbakia, gaurko data-rekin argitaratu dena, ekitaldian bertan banatu zuten, eta etxe guztietara helduko da gaur.

BOST HITZA-K ▶

TOLOSALDEKOA

Sortu. 2001eko abenduaren 18an sortu zen *Tolosaldean Egunero* izenarekin.

Egunkaria-ren itxierarekin, nazio mailako egunkariak hartu zuen *Egunero* izena; Tolosaldekoak, baina, ez zuen etenik izan, Tolosaldeko HITZA sortu zelako —Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA da egun—.

Sortzaileak. Bertako Hedabideak —Berria-ren EKTko enpresakoa—, Galtzaundi Euskara Taldea eta 80 bat gizarte eragile.

Tirada. 7.500 ale. Web orrialdea ere badu.

Erakunde laguntzaileak. la udal guztiek laguntzen dute diruz; baita Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak ere.

OARSOALDEKOA

Sortu. 2003ko ekainaren 24an.

Sortzaileak. Bertako Hedabideak eta Branka, Lau Haizetara, Abaraska, Orratz! eta Hitz-Hots euskara elkar-teen. Oraingo 30 bat gizarte eragile sartu dira.

Tirada. 6.000 ale. Web orrialdea ere badu.

Laguntzaileak. Pasaia-ko, Lezoko eta Oiarzungo udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundia.

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKOA

Sortu. 2003ko azaroaren 11n.

Sortzaileak. Bertako Hedabideak, 11 Barri eta Kalaputxi euskara elkar-teen eta hainbat gizarte eragile.

Tirada. 5.300 ale.

Laguntzaileak. Hamabi udal eta Eusko Jaurlaritzak.

UROLA-KOSTAKOA

Sortu. 2004ko otsailaren 20an.

Sortzaileak. Uztarria, Txaparro, Baleike, Artzape eta Danbolinzulo euskara elkar-teen, Bertako Hedabideak eta 15 eragile.

Tirada. 7.000 ale.

Laguntzaileak. Oraingo, Aizarnazabalgo Udala eta Foru Aldundia —Jaurlaritzaren laguntzaren zain dago—.

GOIERRIKOA

Sortu. Gaur.

Sortzaileak. Goierriarra eta Zintzo Mintzo euskara elkar-teen, Bertako Hedabideak eta 7 eragile.

Tirada. 8.500 ale inguru.

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakum. Ohorezko Maila.

Hegoalde-Femesala Elx 3-5

1. Maila A.

Virgen de Vico-Ibarra 3-3

1. Maila B.

Ituriondo P.Izkara-Laskorain 3-3

ERREBOTEA

Endika Abiril Txapelketa.

Kapito Harri-Noizbait 13-06

ESKU PILOTA

ELKARTEEN ARTEKOA

Kadeteen 1. Maila.

Zazpituurri-Erriope 22-05

(Garmendia/Loidi)

Zazpituurri 2-Illunpe 22-10

(Iraola-Jauregi)

Zazpituurri 1-Olalde 22-13

(Ropon-Leunda)

Elordi Herrigintza-Ramuntxo 22-20

(Xabat Ibaguren-Mikel Artola)

Kadeteen 3. Maila.

Elordi Herrigintza-Erriope 14-22

(Iñigo Llobregat-Jokin Zabala)

Gazteen 1. Maila.

Añorga 3-Zazpituurri 1 21-22

(Elurbe-Mendizabal)

Gazteleku-Zazpituurri 10-22

(Zabala-Legarreta)

Hernani-Aurrera Saiatz 00-22

(Koldo Galarraga)

Gazteen 2. Maila.

Aurrera Saiatz-Arrasateko 22-04

(Beñat Iriarte-Xabier Galarraga)

Zumaia 1-Elordi Herrigintza 15-22

(Iñaki Olano-Aitzol Irure)

Nagusien 1. Maila.

Anaitasuna-Zazpi Iturri 22-10

(Ropon-Garmendia)

Eibar-Zazpi Iturri 07-22

(Baez anaiak)

Aurrera Saiatz-Añorga 14-22

(Imanol Pastrain)

Bergara-Aurrera Saiatz 18-22

(Mikel Beloso-Julen Mujika)

Nagusien 2. Maila.

Intxaurren-Zazpituurri 22-14

(Iriarte - Beloki)

Nagusien 3. Maila.

Aurrera Saiatz 1-Murumendi 18-22

(Igor Aranzabe-Eneko Galarraga)

Aurrera Saiatz 2-Tartaloetxe 22-00

(Ugaitz Renobales-Aimar Galarraga)

Aurrera Saiatz 3-Aretxabaleta 1 22-13

(Unai Aspe-Ion Orbegozo)

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Kadeteak.

Behar Zana-Baigori 22-07

EUSKAL HERRIKO TXAPELK.

Nagusiak.

Behar Zana-Baigori 32-40

ONATIKO TORNEOA

Elurbe-Uzkudun/ 22-13

Apeztekoa-Aldape

DV TORNEOA

Baez anaiak/Izagirre-Mitxoa 22-09

BURLATAKO TORNEOA

Goitia-Gallurralde/Barañain 18-03

Sukia-Arzelus/Etxarri 18-05

Zabala-Legarreta/Arbizu 18-03

FUTBOLA

Gorengoen Maila.

Tolosa-Aretxabaleta 0-0

Saillkapena ▶

1. Hondarribia 11 puntu

2. Touring 10 puntu

3. Orioko 9 puntu

4. Zarautz 8 puntu

5. Pasajes 8 puntu

6. Tolosa 8 puntu

7. Trintxerpe 8 puntu

8. Zestoa 8 puntu

9. Real Union B 7 puntu

Nesken Liga.

Vasconia-Tolosa 0-1

Lurraldekako 1. Maila.

Aurrera-Ecuavarrar 6-0

Vasconia-Tolosa B 1-1

Saillkapena ▶

1. Lengokoak 7 puntu

2. Irún 1902 7 puntu

3. Allerru 7 puntu

4. Euskalduna 6 puntu

5. Martutene 5 puntu

6. Behobia 4 puntu

7. Ostadar 4 puntu

8. Astigarrako 4 puntu

9. Beti Ona 4 puntu

10. Roteta 4 puntu

11. Amara Berri 3 puntu

12. Mariño 3 puntu

13. Ordizia 3 puntu

14. Vasconia 2 puntu

15. Tolosa B 1 puntu

16. Gure Txokoa 1 puntu

Lurraldekako 2. Maila.

Danena (atsedena)

Lazkao-Intxurre 5-4

Saillkapena ▶

1. Sanpedrotarra 6 puntu

2. Danena 4 puntu

3. Lazkao 4 puntu

4. Amaroz 3 puntu

5. Lasarte Oria 3 puntu

6. Usurbil 3 puntu

7. Intxurre 3 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Aloña Mendi-Tolosa 0-3

Jubenilen 1. Maila.

Billabona-Hernani 3-2

Intxurre-Añorga 2-2

Kadeteen Euskal Liga.

Tolosa-Santurtzi 0-3

FUTBOL 7

1. Maila.

Lanbroa Dickens-Ibarra GA 2-1

Saillkapena ▶

1. Knauf-Dec. Nuñez 9 puntu

2. Robers 9 puntu

3. Zibbibo Dance Club 6 puntu

4. Callejo Lanperna 5 puntu

5. Perku taberna 5 puntu

6. St. Etienne Cafe Bar 5 puntu

7. Irish Guinness 4 puntu

8. Zardoya Otis 4 puntu

9. Lanbroa Dickens 4 puntu

10. La Kabuzia 3 puntu

11. Bataplan 3 puntu

12. Cesar Rueda Seguros 3 puntu

13. Bar Ignacio-Hondarribia 3 puntu

14. Kroms 2 puntu

15. Easo Motor 1 puntu

16. Ibarra Gaste Asanblada -1 puntu

2. Maila A.

Akelenea sagard.-Bar Shanti Kirolak 3-4

Saillkapena ▶

1. Disko Bar Egur 7 puntu

2. Ekin Fis. Zentroa 7 puntu

3. Pub Egurri 7 puntu

4. Bar Shanti Kirolak 6 puntu

5. Eibartarra Dance Club 5 puntu

6. Taberna Dani 5 puntu

7. Ron Cartavio 4 puntu

8. R. Izkina-Pasaia 3 puntu

9. Aseplan 4 puntu

10. Encofrados Iguazuri 4 puntu

11. Cabo Rojo Pyxies 3 puntu

12. In the line 3 puntu

13. Nin Climatizacion 3 puntu

14. Papelela Tamayo 1 puntu

15. Akelenea sagardotegia 1 puntu

16. Fermaz Instalaciones GC -2 puntu

SASKIBALOA

Senior Maila.

Aralar-Allerru 58-43

ZESTA-PUNTA

ELKARTEEN ARTEKOA

Kadeteak.

Beotibar 1-Zumaia 2 18-30

(Telleria-Izagirre))

Nagusiak.

Beotibar 1-Gazteleku 2 29-35

(Garmendia-Errendosoro)

Beotibar 2-Zumaia 1 35-32

(Trabazos - Gonzalez)

SANTA LUZIA TXAPELKETA

Infantilak.

Erauskin-Alberro/Etxabe L.-Bildarratz

13-15, 15-11, 10-9

Gabarain-Etxabe R./Manterola-Gurrutx.

7-15, 9-15

Ruzi-Izagirre/Sanchez-Narbarte

15-6, 15-5

FUTBOLA ▶

«Penaltia huts egiterakoan galdu genuen partida»

Hutsna amaitu zen Tolosaren eta Aretxabaletaren artekoa

LEIRE MONTES

«Penaltia huts egiterakoan galdu genuen partida». Horixe da Jose Mari San Sebastian Gorengoen Mailako Tolosaren delegatuaren hausnarketa larunbateko partidaren inguruan. Hamargarren minutuan Artolari penaltia egin zion Aretxabaletako jokalariei batek; baina Pradosek egindako jaurtiketa atezainak gelditu zuen. Horrek partida erabaki zuela dio delegatuak: «Gola sartu izan bagenu, gogo eta indar handiagoz jokatuko genuen partida».

Lehen zatian Aretxabaleta taldearen eskarmentua argi geratu zen; hala ere, arrisku eta gort aukera handirik ez zuen sortu. Bigarren zatian Tolosakoek joko hobea egin zuten, baina atzean tinko eutsi zien aretxabaletarrek, eta moztu egin zituzten urdinen kontraerasoak. «Artolak izan zuen aukera bat: indartsu jo zuen baloia, buruz, baina zuzenean langara joan zen jaurtiketa. Lasak eta Zuloagak ere beste aukera bat huts egin zuten...». Apeztekoa, Goikoetxea, Unai

Garmendia (Romero, 45m.)-Sagastibeltza, Ion Garmendia, Artola, Orue, Prados (Aierbe, 70m.), Lasa (Ilunbe, 75m.), Aranguren (Elola, 65m.) eta Blanco (Zuloaga, 45m.) zelaira-tu zituen Tolosak Berazubín.

ESKERTZA ▶

JOSEFA AGIRRE AGINAGALDE andere hil berraren seniden partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zireneen guztioi.

Tolosa, 2004ko urriaren 5a



Larunbateko partida; lehen lerroan, Prados kapitaina. IMANOL GARCIA

hilberriak ▶

eskualde hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

Josefa Agirre Aginagalde
(Pello Odriozola euskal preso politikoaren ama)

Beti gure artean egongo zara

Bailarako ETXERAT

TOLOSA, 2004ko urriaren 5a

ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA

Landa Turismoko IV. Ikastaroari ekin zioten atzo Fraisoro eskolan

Parte hartuko duten hamabost ikasleek, tartean lau txiletar izango dira, hiru hilabeteko programa dute aurretik



Ikastaroko hasiera ekitaldian hizlariak bat egin zuten prestakuntzaren garrantzia aipatzerakoan. IMANOL GARCIA

KRISTINA AZKARAI ▶ IKASTAROKO IKASLEA

«Araizko bailara landu gabe dago turistikoki»

Gaur egun familia guztiairekin Berrobin bizi da, Gaintzan, bere jaioterria den Nafarroako herri txikian, landa etxea izango dena eraikitzen ari diren bitartean.

Zer espero duzu ikastea ikastaro honetan?

Jakin nola hasi landa turismoarekin. Gehienbat fakturak eta nola egin, jendeari harrera nola egin.... Landa etxeetan be-

zero bezala izan gara, baina ez dugu ezagutzen barrenean zer dagoen. Ezagun batek esan zidan ondo zegoela ikastaroa eta interesantea iruditzen zait. **Nondik sortu zaizue landa etxea jartzeko ideia?**

Araizko bailara ezagutzea eman nahi dugu. Betelun badaude landa etxe batzuk, besteren bat Arriben, baina turismoaren aldetik ez dago batere



I. GARCIA

landuta Mailoetako lurralde hori. Gainera gehiago gustatzen zaigu herri txiki baten bizitzea, jendearekin sortzen den harremana beroagoa delako.

IMANOL GARCIA

Landa turismoko IV. Ikastaroari atzo eman zitzaion hasiera Mendikoi Fraisoro Nekazaritza Eskolan. Abendua arte iraungo duen ikastaro honek bi helburu nagusi ditu: alde batetik, landa turismoan aritu nahi duten guztientzako formazio osoa eskaintzea; eta bestetik, sektore horretan dagoeneko finkatuak daudenei etengabeko formazioa eskaintzea.

Aurkezpen ekitaldian erakunde ezberdinetako kideak izan ziren: Juan Carlos Zuloaga, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenerako zuzendaria; Lander Arregi, Mendikoiko zuzendaria; Idoia Ezkurdia, Euskal Herriko Nekazal Turismo eta Landa Etxetako Elkarte teknikaria; Yolanda Legarra, ikastaroaren arduraduna eta Ana Mari Eizmendi, aurreko urtean ikastaroa burutu zuen ikasle ohia. Hizlari guztiek bat egin zuten turismoaren alorrean prestakuntzaren garrantzia aipatzerakoan.

Emakumeak, gehiago

Aurtengo edizioan hamabost ikasle parte hartuko dute. Ikasle hauetatik lau Txiletik etorriak dira, Mendikoiko beste zenbait ikastarotan gertatzen den bezela. Emakumezkoak dira gehienagoak —guztira hamaika daude—, beste urteetan gertatu den bezalaxe: «Bere izenean ez badago ere, etxea eramaten duena, azken finean, emakumea izaten da», arrazoitu zuen Yolanda Legarra.

Ikastaroaren helburu nagusia Euskal Elkarte Autonomoan dauden 250 landa turismoak sendotu eta berriak sortzea da, landa ustiaketak ekonomikoki dibertsifikatu daitezten. Era berean sektoreko profesionali formazio egokia eskaintzea lortu nahi da, bezeroek zerbitzu gehiago eta kalitate hobekoak eskatzen baitituzte.

ZIZURKIL ▶

Kultur etxeetako ikastaroak atzo hasi ziren


Atxulondo eta Iriarte kultur etxeetan egin ohi diren ikastaroak hasiera eman zitzaizkien atzokoan. Atxulondon, Funky-Hip-Hop dantza —hamabost urtetik gorakoentzat— atzo hasi zen eta astelehen eta asteazkenetan izango da, 17:30etik 18:30era. Yoga ere egun berdinean izango da, baina 19:00etatik 20:30era. Eskulanak, gaur hasi eta asteartero izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Jubilatuei dagokionez, atzo hasi ziren gimnasia ikastaroan eta astelehen, asteazken eta ostiraletan, 10:00etatik 11:00etara izango da ordutegia. Bestalde, Iriarte kultur etxean, haurrek plastika hasi zuten atzo eta gaur antzerkiari ekingo diote. Ikastaro berri bat, astelehenero izango dena, atzo hasi zen eta *Nola konpondu etxeko txapuzak?* du izenburutzat.

IRURA ▶

Udalaren ikastaroak hasiera emango zaie gaur

Udalak antolatzen dituen ikastaroen aurtengo ikasturteari hasiera emango zaio gaur. Pintura ikastaroa asteartero izango da 16:00etatik 18:00etara adin nagusikoen tzat eta 18:00etatik 19:00etara sei urtetik gorako haurrentzat. Egur-taila ikastaroa, berriz, asteazkenero izango da 18:00etatik 20:00etara. Oraindik pare bat plaza dauke libre. Bestalde, jubilatuek hitzaldia izango dute gaur, 17:00etan, zaharren biltokian. *Aniketa fisiko orekatutaren onurak* du izena eta Kutxa Ikasgelak antolatzen du.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: enio@enioenrio.com
www.enioenrio.com

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 119.000 eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo kalean, 2 logela, erabat berriua, ezin hobeto, igogailua jartzeko aukera.

Tolosa. Santa Klara. 4 logela. Berokuntza. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

Tolosa. Amaro azuon oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel, 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Larramendi, pisu ederra

garajearekin salgai.

Tolosa. Gernikako lorategian, 108 m², pisu ederra salgai, trastelekuarekin.

Tolosa. Araba etorbidea. Pisu ederra, garajea eta trastelekuarekin. Berokuntzarekin. Bista ederrak eta eguzkitua.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai.

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrarekin, aukera paregabea!!!

Ibarra. Argindegi, hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela,

berokuntzarekin.

Ibarra. Euskal Herria Kalea hasieran. 85 m²-ko etxebizitza. 219.370 euro.

Ibarra. Julian Gaiarren. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komun.

Ibarra. Berokuntzarekin. Guztiz kanpalderra.

Ibarra. Eraikuntza berriko bi logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Villabona. Etxe-ondo, pisua ganbara eta garajea ibiarekin.

Villabona. Kale Berrian 180 m²-ko etxebizitza berokuntzarekin.

Villabona. Errota, pisua ganbara eta garajea ibiarekin.

Villabona. Kale Berrian. Eraikuntza berriko etxea salgai. Garaje bikoitza ibiarekin.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.

Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

Andoain-Urnieta. Hainbat etxebizitza berri eta 2. eskukoak.

Pabilioi eta lokaletan. Aukera handia; salmentan eta alokairuan.

Peñiscolan. Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

ALEGIA ▶ MUSIKA

Cor Ciutat abesbatzaren emanaldia, larunbatean

Hamazazpi abesti eskainiko ditu Tarragonako abesbatzak Alegiako elizan eskainiko duen emanaldian; kontzertua, 20:45ean hasiko da



Cor Cuitat abesbatza osatzen duten kideak. HITZA

JOSEP PRATS ▶ COR CIUTAT ABESBATZAKO ZUZENDARIA

«Euskal Herriak ibilbide luzea du abesbatzen alorrean»

Tarragonako Cor Ciutat abesbatzako zuzendaria da Pep Prats 1987az geroztik; horretaz gain, Bartzelonako Cantiga abesbatzaren zuzendari, abesbatza lehiaketetako epaile... ere bada.

Egun, Kataluniako abesbatzak mailarik altuenen artean kokatzen direla diote.

Ez zait mailaz hitz egitea gustuko; hori ziklikoa izaten da, abesbatzetako kideak urte batetik bestera aldatzen dira... Hala ere, Kataluniak eta Euskal Herriak ibilbide luzea dute abesbatzen alorrean. Abesbatzak oso sustraituta daude; eta hori oso ohikoa izaten da hizkuntza gutxituak dauden zonaldeetan.

Ezagutzen al duzu Txintxarri abesbatza?

Ez dut aukerarik izan. Hala ere, Euskal Herriko beste hainbat abesbatza ezagutzen ditut eta oso ondo abesten dutela esan behar da. Tolosan urtero egiten den Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan horietako asko entzuteko aukera izan dut.

Zein iritzi duzu lehiaketa horren inguruan?



HITZA

Lauzpabostetan epaile gisa aritu naiz Tolosako Abesbatzen Lehiaketan. Europako jaialdirik garrantzitsuenetarikoa dela esango nuke; oso ondo landu dute. Horretaz gain, euskal abestiak ezagutzera emateko oso baliagarria izan da; orain, mundu osoan zehar entzun daitezke Euskal Herriko abesti herrikoiak.

Zer eskainiko duzue larunbateko emanaldian?

Bi zatitan banatuko dugu kontzertua. Alde batetik, Errenazimenduko abestiak eskainiko ditugu; ondoren, Kataluniako abesti herrikoien txanda izango da. ◀

OLAIA ESKITXABEL

Txintxarri abesbatzarekiko elkartrukeari esker, Tarragonako Cor Ciutat abesbatzak emanaldia eskainiko du datorren larunbatean, urriaren 9an, Alegiako elizan; hamazazpi abesti eskainiko dituzte. Emanaldia, 19:45ean hasiko da.

1983an sortu zen abesbatza, herritarren ekimenez eta Tarragonako Udalaren laguntzarekin; Francesc Llongueras eta Montserrat Riosek zuzendu ondoren, Josep Pratsena da 1983az geroztik abesbatza zuzentzearen ardura.

Garai desberdinetako musika lantzen dute; Alegiako emanaldian, Errenazimenduko abestiak, abesti sakroak eta Kataluniako kanta herrikoiak eskainiko dituzte. Guztira, hamazazpi abesti izango dira entzungai.

1997az geroztik, *Semana Cantat* zikloa antolatzen dute; bertan, mundu osoko abeslariak eta abesbatzak biltzen dira.

Tarragonako eskualdeetan izaten dituzte emanaldi gehienak; baina beste hainbat leku-

EGITARAUA ▶

POLIFONIA KLASIKOA

Abesti sakroak. *Hombres, Victoria, Victoria!; O vos omnes qui transitis; Ave Maria* (koru bikoitza) eta *Ave Maria*.

Errenazimenduko abesti profanoak. *Mille regretz; Vous perdez temps; Mignone allons voir... eta Le chant des oiseaux*.

KATALUNIAKO ABESTI HERRIKOIAK

Kataluniarren moldaketak. *Margarideta; Canço de Bressol; La filla del Marxant eta El pobre alegre*.

Baix Camp eta Montsanteko abesti tradizionalak. *Soneta, vine; El rei mariner; Canço de Batre; El pobre moliner eta La Sardana de les Monges*.

tan ere izan dira: Bartzelonan, Asturiasen, Lleidan, Sevillan, Ingalaterran, Frantzian, Portugalen...

ALEGIA ▶

Autoestimaren garrantzia hizpide

Autoestimaren garrantziaz mintzatuko da etzi, osteguna, Xabier Arrazola Jubilatuen elkarteak. Etsipenari aurre egiteko gomendioak eta tresna psikologiko egokiak eskainiko ditu, besteak beste. Hitzaldia, 16:30ean hasiko da.

BIDEGOIAN ▶

Helduen Eskolak hasi du ikasturte berria

Irailaren 20ean hasi zuten ikasturtea Helduen Eskolan; astelehenetan, 14:30etik 16:30era biltzen dira gela baliointzean. Eskara eta gaztelania, matematikak, memoria lantzeko teknikak, informatika... lantzen dituzte.

ABALTZISKETA ▶

Ariketa fisikoaren garrantziari buruzko hitzaldia

Adina dela-eta sortzen diren arazoei aurre egiteko osasungarriak diren ariketak proposatuko ditu Miren Saldaña adituak, gaur, Kultur Etxean izango den hitzaldian. 16:00etan emango zaio hasiera hitzaldiari.



IBARRA ▶ KIROLAK

Berdinketa lortu du Ibarrak Virgen del Vico ren aurka

Parekaturik ibili ondoren puntuak bi taldeen artean banatu ziren azkenean

IÑIGO TERRADILLOS

Tentsio handia bizitu zen larunbatean Arnedon, Ibarra eta Virgen del Vico taldeen arteko partidari. Interesgarria izan zen eta azken emaitzarekin gustura egoteko moduan ziren bi taldeak puntu bana eman baitzituzten.

Errioxar taldeak, azken postuan badago ere, gorakoetan

egoteko maila duela erakutsi zuen, jokalaririk indartsu eta go-gorrez osaturik baitago.

Beraz, indarrarekin ez baino teknikarekin egin beharko zion Ibarrak aurre partidari, indarrean Arnedokoak gehiago ziren eta.

Lehenengo momentutik Ibarra egin zen baloiaren jabe, eta gol aukera asko izan bazituen ere ez zuten sarean sartzen asmatzen.

14. minutuan iritsi zen lehen-dabizikoa Ibarra koentzat. Cris-

tianek bigarren zutoinera erdiratu zuen, Ustaritz buruarekin emateko zain zegoen lekura, baina Arnedoko defentsak bat aurreratu zitzaion, azkenean honek bere atean sartzeko.

0-1eko emaitzarekin iritsi ziren atsedendira. Bigarren zatian parekatuta ibili ziren bi taldeak. Bigarren minutuan, Zaballok penalti eztabaidagarri bat gelditu zuen eta, hurrengo jokaldian errioxarrek banakoa egin zuten. Tentsioa areagotu zen une horretan. Amaitzeko

bost minutu falta zirela Labakak Ibarrarentzat bigarrena egin zuen eta segituan berdindu zuten Arnedokoak.

Berriro ere etxeko taldeak gola egitea lortu zuen. Orduan, falta egin zuten eta Ibarrak penalti bikoitzarekin 3-3koa egin zuen. Azken segunduetan bi taldeentzat aukerak izan ziren, baina markagailua ez zen aldatu.

Bi taldeek merezi izan zuten garaipena, eta azkenean banatu egin ziren, puntuak.

IBARRA ▶

Mikroenpresei zuzenduriko KZprestakuntza

Bi orduko ikastaro praktikoak eskaintzen ditu KZprestakuntzak eta lehenengo minututik aplikatzen da internet eguneroko premietna lagungarria den moduan. Interneti buruz jakin behar dena jakiteko antolatuta dira KZprestakuntzako doako ikastaroak. Izena emateko www.kzformacion.net orrian edo 902 25 25 95 telefonora deituz. Gaur enpresarentzako finantzaketa Internet bidez landuko da 18:00etatik 20:00etara, eta ostegunean nola prestatu negozio bidaia internet bidez 15:30etik 17:30era.

BERASTEGI ▶

Mantenimendu gimnastika eta aerobik-a

Gaur hasiko dira mantenimendu gimnastika eta aerobik ikastaroekin Berastegin. Eskolako gimnasioan izango dira. Gimnastika 18:00etatik 19:00etara eta aerobik-a 19:00etatik 20:00etara. Ostegunetan egingo da bigarren saioa eta ordua gaur bertan zehaztuko da.

ELDUAIN ▶

Haurreskolako matrikulaketan aldaketak

Elduaingo Haur Eskolan matrikulaketa aldaketa bat izan da. Hasieran matrikulaketa epea urtean hiru aldiz zabalitzen bazen, hemendik aurrera urte osoan izango da haurrak matrikulatzeko aukera. Haur Eskolako ume kopurua ere handitu egin da, lehen 7 haur eta orain 07:30etik 18:30era da ordutegia.



Lasturrera irteera egin zuten ibartarrek larunbatean

IBARRA ▶ 92 pertsona bildu ziren larunbatean egin zuten Lasturrerako irteeran. Ibarra ko Garagardo Azokan lanean aritu zirenak eta animatzen ziren herritarrek ziren gonbidaturik irteera honetarako eta antolatzaileak oso gustora daude zuten helburua bete eta 2 autobus joan zirelako Ibaratik.

Hamaiketako egiteko Meagasen geratu ziren eta Getarian kalejira izan zuten eguerdian trikitilariak alaituta. Bazkaltzera Lasturrera joan ziren eta bazkaldu ondorenean zezenak zituzten zain zezen plaza txikian. Adin guztietako jendea joan zen eta egun polita pasa zutela aipatu zuten joan zirenek. IÑIGO TERRADILLOS

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88



Alegia. Eraikuntza berria, duplexak eta etxebizitzak salgai 34.500.000 pezetatik aurrera. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Altzo. Erabat berritua dagoen etxebizitza salgai, 2 solairukoa, solairu bakoitza 85 m2-koa. 707 m2-ko lursaila du. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 185 m2-ko etxebizitza zoragarria salgai. Egongela, sukalde-jangela, 5 logela, 2 bainugela eta trasteleku. Inmo Etxesagasti 943 69 68 56.

Villabona. 75 m2-ko etxebizitza salgai, 3 logela, aparteko egongela-sukalde

amerikarra, bizitzera sartzeko moduan. 34.000.000. Inmo Etxesagasti.

943 69 68 56.

Ibarra. 69 m2-ko etxebizitza, trasteleku, egongela, sukaldea eta 2 logela. Eraiki berria, kanpokaldera begira. 4. pisua igogailuarekin. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 90 m2-ko etxebizitza, egongela, 2 logela, 2 bainugela eta jantzigelarekin. Eguzkitsua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 291 m2-ko etxea salgai. 3 solairukoa. 1.037 m2-ko lursaila.

80.000.000. Inmo Etxesagasti.

943 69 68 56

Ordizia. 50m2-ko etxebizitza salgai. 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatze. 25.000.000 pezeta. Ezin hobeto. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 85 m2-ko etxebizitza salgai. Egongela, sukalde handia, hiru logela, bainugela eta trastelekuarekin. Berritu berria, altzariz hornitua. 29.900.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Lizartza. Baseri oso polita, 155 m2-ko 2 solairu ditu, berritua, 1.800 m2-ko lursailarekin. Inmo Etxesagasti.

943 69 68 56.

Zizurkil. 85 m2-ko etxebizitza. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela.

Berritze. 36.000.000. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 90 m2-ko etxebizitza salgai.

Egongela, sukaldea, 4 logela eta bainugela. Guztiz kanpoaldera eta berritua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 61 m2-ko eta 8 m2-ko trasteroa duen pisu altua. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Guztiz berritua. Kanpoaldera. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

LEITZA ▶ KIROLA



Prestakizunek on egin zieten Aurrera K.E.ko jokalariei. J. ASTIBIA

6-0 irabazi du Aurrera KEak Arkixkilen

CD Ecuavarraren aurka, jokalaria bat gutxigorekin aritu behar izan du

JAIONE ASTIBIA

Ligako aurreneko partidua irabazi zuen Aurrera KEak larunbatean, eta alde handiarekin gainera: 6-0ko emaitza eskeratu zuen talde leitzarrek, CD Ecuavarraren aurka jokatu-tako norgehiagokan.

Partiduen emaitza soilari erreparatuz gero, Salazarren mutilak argi nagusitu zirela ikusten da eta halaxe izan omen zen, Zunzunegi, taldeko lehendakariaren adierazpen arabera: «Gutxi gora behe-
ra esan daiteke tramiteko partidua izan dela eta erraz nagusitu direla bertakoak. Jokaldi politak ikusi ditugu gure mutilengandik», zioen berak.

Askotan iritsi ziren aurkariaren ate ingurura eta azken emaitzak ere horixe irudikatu zuen, sei gol sartu baitzituzten: Mikel Barberia eta Eneko Andueza bana, ligan sartzen dituzten lehendabizikoak, bestalde; eta Eneko Barberia eta Harkaitz Bengoetxeak, berriz, bina. Barberiak, zaharrenak, sartu zituen bi tanto berri hauekin, hiru ditu jada bere kontu pertsonalean. Partiduan

AUERRERA ▶

C.D. Ecuavarra-ren aurka, Arkixkil futbol zelaian jokaturako partidua. Unai Olano kanporatu egin zuten.

GOLEGILEAK

Harkaitz Bengoetxea. 2 gol.
Eneko Barberia. 2 gol.
Eneko Andueza. Gol 1.
Iker Barberia. Gol 1.

nabarmendu zen jokalaria, bestalde, Harkaitz bera omen, «bere erdiko leku horretatik bideratu zituen jokaldi bikainen-gatik», iturriek argitu dutenez.

Aipatzekoa da, Unai Olano zelaitik kanporatua izan zela, aurkari bati egindako sarrera itsusia zela eta, taldea jokalaria bat gutxigorekin geldituz.

Edozein moduz, ikusteko partidua polita izan arren, ikusle gutxi bildu omen zen bertara. «Eguraldi ona zegoen, jokalaria ere ongi aritu ziren eta han bildu ziren gure zaletuen animoak eskertzeak dira. Jende gehiagok etorri behar luke, ordea», dei egin zuten.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Hobetu ez zitekeen festa giroa 'kaskagorretan'

Ondarretan hasi eta Uitzin bukatu, kirola eta festa uztartuz ibili da koadrila hau

J. ASTIBIA

Larunbatean burutu zuen Kaskagorren XV. Pentatlona herriko lagun koadrila batek, urteroko martxan: Donostian igeri aritzen direnak hainbeste ez badira ere, aurtengoan 54 lagun ausartu ziren bizikletaz egin beharreko proban saiatzera. «Inoiz baino lagun gehiago», zioten bidean laguntzaile modura joan zen taldeko kide batek «Ibarraraino taldean etortzen gara eta handik gora, Mikeletetarraino, ba-kioitzak ahal duen bezala egi-

ten du bidea», argituz. Bidean ez omen zuten aparteko gertakariarik izan, gupil zulaketa batzuk izan ezik, eta gustura zeuden. Handik aurrera, bizikletak furgonetetan sartu eta lasterkako saioari ekin zieten partaideek.

Kirol frogen ondoren, pentatlono beste biak, afaria eta Uitzira festara joatea, arrakastuago izan ziren, 75 lagun bildu omen ziren eta. Froga guztiak eginez, gau pasan ere denborarik hoberena egin zuenak, hark irabazi izan behar zuen, sasobeari eutsiz.

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

Haur Eskolan leku batzuk libre gelditu dira

Matrikulazio epean denak bete baziren ere, hiru haurren gurasoek baja eman dute



Nagusiki beste umeeziko harremanak lantzen dira haur eskola. J. A.

J. ASTIBIA

Udalak ohar baten bidez jakinarazi duenez, Leitzako Haur Eskolan hiru leku gelditu dira libre, ikasturtea, irailean hasi zenez gerotik. Hau dela eta, bere garaian, leku kopuru mugatua izateagatik, beren umek matrikulatu ezinik gelditu ziren gurasoei dei egin diete, nahi edota behar izanez gero behinik behin, beren haurrak

Haur Eskolara eramateko aukera eskura izan dezaketela aditzera emanez. Edozein moduz, honen inguruan informazio gehiago behar izanez gero, udaletxeko idazkaritzan eskuratu daiteke.

Leitzako Haur Eskolan, aurtengo ikasturtean, lau irakasle ari dira lanean, hiru gelatan banatuta dauden 41 haurrekin, hamalau hilabetetik hasi eta 3 urte bitartekoak denak.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzio klinika: 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
Villabona. Anbulat.: 00 69 70
Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxis: 67 04 20

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Ebebeste. Gernikako arb. 3 (Tolosa). 943 65 10 40.
Erbiti O. Lizarraga, 7, (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldeko_publi@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaledea. 687 41 00 22
anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ESKAERA

Gasteizera joateko.

Astelehenetik ostiralera, eguerditan, Tolosatik Gasteizera autoz joateko norbait behar dut. Gastuak erdibana. Telefonoa: 600 05 42 27.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



AGENDA ▶

AURKITUAKOAK

Tolosa. Kate bat eta eraztun bat aurkitu dituzte. Galdutuenak dei dezala 943 68 33 51 telefono zenbakira.

DEIALDIAK

Abaltzisketa. Gorputz-eriketen inguruko hitzaldia, 16:00etan Kultur Etxean. Adina dela-eta sortzen diren arazoei aurrea hartzeko gorputzari eta adimenari mesede egingo dioten gorputz-eriketak proposatuko ditu Miren Saldañas adituak.

Tolosa. Peñasal Fundazioak datorren ikasturterako Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrikula epea ireki du 16-25 urte arteko graduaturik gabeko gazteentzat: 943 67 61 61.

Tolosa. Jai Batzordearen bilera, egingo dute gaur Inauterien inguruan aritzeko. 19:30ean, Kultur Etxean. Herritar guztiak daude gonbidatuta batzar horretara.

Tolosa. Hirukide ikastetxean ikasturte hasierako bilerak ari dira egiten egunotan mailaz maila. Gaur, Haur Hezkuntzako bost urteko haurren gurasoekin bilduko dira irakasleak 17:30ean Jesuitinetan; Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleen gurasoekin 18:30ean



Babarrun pintxoaz, tabernariekin bilera

TOLOSA ▶ Hasi dira aurtengo lehen babarrunak saltzen eta jaten. Azaroaren 21ean eta 22an egingo da babarrunari buruzko azoka berezia. Hori dela eta, egun horretan banatuko den babarrunaren pintxoaz hitz egiteko Tolosako taberna eta jatetxeetako ostalariekin bilera deitu du Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu Departamentuak bihar, asteazkena, 16:30ean udaletxeko batzar aretoan. Argazkian, iazko pintxoak. LEIRE MONTES

leku berean, eta DBHko lehen mailako ikasleen gurasoekin 18:30ean Eskolapioetan.

Tolosa. Ibilbide 181.a dokumentala eskainiko dute ostegunetan eta ostiralean,

19:30ean, Kultur Etxean. Palestinaren Lagunen elkarteak antolatutako ekimena.

Eyal Sivaw (israeldarra) eta Michel Khleifi (palestinarra) zuzendarien filma kamararen

bidez herritarrei hitza ematearren dago egina.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Txaro Medrano pintore

tolosarrak bere koadroak jarri ditu ikusgai Sorron koadro denda. Estilo eta gai asko erabiltzen ditu, batez ere paisajeak. Aste osoan izango dira bertan.

Tolosa. Olivia Sanchez Lorenzo pintoreak bere lanak ditu ikusgai Tolosako Lanbroa tabernan. Gehienbat paisajeak dira.

Tolosa. Ana Gonzalez Atorrasagasti artista errenteriarrek lore lehorren erakusketa jarri du Saikin tabernan. Hilabete osoan izango da erakusketa ikusteko aukera.

IKASTAROKAK

Ibarra. Gimnastika erritmikoan zabalik da izena emateko epea. Telefonoa: 629 11 20 61.

Ikaztegieta. Aerobik ikastaroan izena emateko aukera dute herritarrek egunotan: udaletxean (943 65 33 29) edo kiroldegian (943 65 20 46).

Tolosa. Gimnastika erritmikako eskolan izena eman daiteke, Igarondo igerilekuan eta Tolosa CFko bulegoetan.

ZINEMA

Tolosa. Garfield. 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zinema aretoan. Ikuslearen eguna da.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Eider, Gaur 6 urte. Zorionak Eider, Xabat, Josu eta etxeko partetik. Muxu handi bat.



URTE ASKOAN
Iñigo Bengoa (Anoeta). Gaur 3 urte. Zorionak familiaren partetik. Ondo pasa pottolo!

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

eztabaidako galdera berria:

zer iruditzen zaizue Rodriguez Galindok etxean betetzea bere zigorra

ONDO ▶ GAIZKI ▶ EZ DAGO ESKUBIDERIK ▶ LEGEZKOA DA ▶

